

JON ARRETXE IDAZLEA

«Kurduiek asko estimatzen duten izaki mitologikoa da Xahmaran»

Testua: Patxi Sarriegi

Kurduak protagonista nagusi dituen eleberrri beltza idatzi du Jon Arretxek, Istanbulen eta Munichen kokatua. Jendea enkarguz akabatzen duen soldatapeko hiltzailea da liburuko protagonista, biktimak nortzuk diren eta zer egin duten jakin gabe garbitzen dituen. Elkarrizketi garrantzi handia eman die bertan, istorioari ahalik eta sinesgarritasun handiena eman nahian. Xahmaran, Arretxek libururako aukeratutako izenburua, kurduiek asko estimatzen duten izaki mitologikoa da, jakituria eta emankortasuna sinbolizatzen dituena. Egileak agertu digunez, gustura dabil prosan, nobela laburrean zein ipuinen generoan; oraingo asmoa Xahmaranen gisako nobela beltzein jarraitzea du.

Nondik nora hasi zinen liburu hau prestatzen eta idatzen? Nola sortu zen liburua sortzeko prozesua?

Aspaldi honetan nobela beltzak idatzen ari naiz, nire gustuko hirietan kokatuak, ahal dela urrun samar. Istanbul beti gustatu zait asko eta horregatik aukeratu nuen Xahmaran kokatzeko.

Zein da liburuak jorratzen duen gai nagusia?

Soldatapeko hiltzaile bat dago, jendea enkarguz akabatzen duena, biktimak nortzuk diren ez zer egin duten jakin barik. Krudel samarra da hiltzerakoan, baina aldi berean bihozbera, ateratzen duen diru apurra ama elbarria zaintzeko erabiltzen du eta.


Nobela beltz honek Istanbul eta Munich ditu kokaleku, desberdintasun guztien gainera harreman estua daukaten bi hiri...

Protagonista nagusiak kurduak dira, familiaren zati bat Istanbulen bizi da, bestea Munichen, Alemanian milioika turko eta kurdu daude... Egokia iruditu zitzaidan bi kokalekuok uztartzea.

'Xahmaran' izenburua jarri diozu liburuari... zer dela eta?

EREINEK ARGITARATUTAKO 'XAHMARAN' ELEBERRIA IDATZI DU JON ARRETXEK. EREINEN UZTA GORRIA SAILEKO 1. ZENBAKIA DA

Jon Arretxek adierazi digunez, aspaldi honetan nobela beltzak idatzen ditu, gustuko hirietan kokatuak, ahal dela urrun samar.



Kurduiek asko estimatzen duten izaki mitologikoa da, jakituria eta emankortasuna sinbolizatzen dituena, bizia nahiz heriotza eman ditzakeena. Gainera, izena bera nahiko musikala iruditu zitzaidan.

Zeharka bada ere gogoetarik eragin nahiduen istorioa da... Literaturak ezinbesteko al du gogoeta?

Ezinbesteko ez, baina osagarri interesgarria dela uste dut.

Zeintzuk dira pertsonaia nagusiak? Nolako da beren arteko harremana?

Kawa da hiltzailearen izena. Amarekin bizi da Istanbulen, et-

xe hondatu baten, miserian ia. Etxeko gizona eta anaia nagusiak Kurdistanen hil zituzten, soldadu turkuen kontrako borrokan, Kawaren anaia eta arreba Munichen bizi dira, Istanbulen geratu direnez apur bat ahaztuta...

Liburuan nabarmenduko zenukeen pasarterik...

Egia esanda, lerro bakoitza ahalik eta ondoen idatzen saiatu naiz... hobe horrelako gauzak irakurleen esku uztea.

Asko dira orain arte idatzita daukazun liburuak, denak narratibakoak. Beste generoetan aritzeko asmorik?

Prosan nabil gustura, nobela laburrean zein ipuinen generoan. Bidai kronika batzuk ere idatzi ditut. Nire oraingo asmoa Xahmaranen gisako nobela beltzein jarraitzea da, oso gustura sentitzen bainaiz formato honetan.

Hizkuntza adierazkorragoa lortzeko helburuz, zein baliabide estimatzen duzu gehien?

Elkarrizketi garrantzi handia ematen diet, ahalik eta sinesgarrienak asmatzen saiatzen naiz beti, adierazkortasun hori lortu nahian.

Euskal literaturan hautsi behar-ko litzatekeen mitorik...

Gaur egun ez dut ikusten mitorik, ez dut uste idazle gazteek horrelakorik daukatenik...

Ba al duzu eskuartean literatur proiektu berririk?

Bai, bat baino gehiago. Argitaratuko dudan hurrengo obra '7 kolore' izango da, baina diskaliburu moduan. Liburu horrek bazeuzkan irudiak eta testua, eta beti iruditu zait musikaren zutabea falta zitzaizola osoagoa izateko. Konpositore bat lanean ari da eta oso gauza polita geratuko dela uste dut. 7 kolore berraren ondoren beste nobela beltz bat argitaratuko dut, Tangerren kokatua.